

*LHko ikasleen euskararen
erabileran eragiteko*

Patio garairako proposamenak



Patio orduetan euskararen erabileran eragin nahi izaten dugu ikastetxeetan.

Dokumentu honetan, horrekin lotutako zenbait proposamen egiten dira.

Ez da gida bat. Kontuan har daitezkeen arlo batzuk aurkezten dira, eta ondoren zenbait proposamen praktiko egiten dira.

Hortik abiatuz, ikastetxerako ideia baliagarri batzuk aurkitzen badituzue, primeran.

LEHEHENGO ATALA: ABIAPUNTUA

- 1- Hezitzaile Berritsuak: Eragiteko prest al gaude?
- 2- Kontuan izateko gai garrantzitsu batzuk
 - Patioaren antolaketa: ekarri erdigunera
 - Jarduera berriak proposatzea
 - Borondatezkoa izatea
 - Zentro izatetik urruntzera
 - Ikasle helduenak eragile
 - Erabilerari eman garrantzia, eta ez zuzentasunari
 - Aurkeztea eta ahalegina eskatzea
- 3- Proposamenen ezaugarriei buruz

BIGARREN ATALA: PROPOSAMENAK

- 4- Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa diren jarduerak
 - Giza eskulturak
 - Ipuin kontaketa saioak
 - Ikasleek dinamizatutako tailerrak
 - Itsua eta laguntzailea
 - Submarinoak
- 5- Hizkuntza-errutinak txertatzea jardueretan
 - Hiru lerroan
 - Maite zaitut
 - Ukitu zaitut
 - Zapi zapi moldatua
 - Pilota gora
 - Lurra-aria-itsasoa
 - Hau ez da nirea
 - Abestiak dituzten jolasak
- 6- Motibazioa oinarri duten jarduerak
 - Botila betetzea
 - Rol jolasa eusleekin

1.- Hezitzaile Berritsuak: Eragiteko prest al gaude?

Irakasle moduan euskararen erabileran eragiteko dugun oinarrizko estrategia Hezitzaile Berritsuak izatea da: banakoekin elkarrizketa asko sortzea eta beraien elkarrizketa askotan parte hartzea.

Hau da: gure eragin aktiboaren bidez beraien artean euskara asko erabil dezaten laguntzea.

Beraz, erantzun behar dugun lehenengo gauza hori da:

Patio orduetan jarrera aktiboa izan eta eragiteko prest al gaude?

Erantzuna baiezkoa bada, dokumentu honetako ideiak behar bada baliagarriak irudituko zaizkizue. Erantzuna ezezkoa bada, dokumentu honetako ideiak ez dizuete balioko.

Eragiteko prest bagaude, indarrak eta baliabideak neurtu beharko ditugu:

- Egunero ahaleginduko gara? Edo indarra bereziki egun batzuetan jarriko dugu (astean behin, adibidez)?
- Zenbat irakasle arituko gara ahalegin horretan? Guztiok? Heren bat? Bakan batzuk?

Erabakitzen dugunaren arabera, gure eragina handiagoa edo txikiagoa izango da, eta intentsitate handia edo txikia izango du.

Ondoren, oso garrantzitsua da egingo duguna planikatzea: zein jarduera eta noiz egingo ditugu? Zer prestatu behar dugu? Nola aurkeztuko diegu ikasleei? Nortzuk arituko gara? Planifikatzen badugu, ikasturte osoan zehar egin ahal izango dugu. Ez badugu planifikatzen, indarra galdu eta ekimena desagertzeko arriskua izango dugu.

2.- Kontuan izateko gai garrantzitsu batzuk

Patio orduetan euskararen erabileran eragin nahi badugu, ondoko gai hauek kontuan izatea proposatzen dizuegu.

Patioaren antolaketa: ekarri erdigunera

Patioaren antolaketa garrantzitsua izango da euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eskaini nahi baditugu. Gaur egun ikastetxe askotan hau kontuan hartzen da, eta ez soilik hizkuntzaren ikuspegitik, hezkidetza edo aniztasun ikuspegitik ere interesgarria da hau kontuan izatea.

Hau da: futbola beti erdigunean baldin badago, eta guk proposatzen ditugun jarduerak patioaren albo batean egin behar badira, hainbat ikaslek ez dute inoiz parte hartuko eta gaztelania izango da patioaren erdiguneko hizkuntza.

Beraz, patio orduan eragin nahi badugu, jarduerak prestatu eta dinamizatzeaz gain, patioaren antolaketa ere oso kontuan izan. Ez da beharrezkoa beti patioaren erdigunean egitea, eta behar bada jardueraren ezaugarriek ez dute hori eskatzen. Baina aurretik aztertu behar da eta erabakiak hartu. Hori bai, erabaki horiek ikasleei nola aurkeztu ere landu beharko da.

Jarduera berriak proposatzea

Errazagoa da jarduera berriak proposatzea eta horietan euskara sustatzea, lehendik ondo ezagutzen duten eta askotan gaztelaniaz egin izan duten jarduera batean hizkuntza-ohitura aldatzea baino. Biak lantzea egokia izan daiteke. Baina hasierako urratsetan behintzat, jarduera berriak proposatzea hobea izan daiteke.

Adibidez: kromo kolekzio bat egiteko moda baldin badago, eta trukea egiterakoan hizkuntza-errutina bat barneratuta badute, ez da erraza hori aldatzea eta hainbatek ez dute ahalegina egin nahiko. Horretan ahalegindu gaitzke, edo gure indarrak beste jarduera erakargarri batzuk proposatzen, aurkezten eta dinamizatzen jarri, eta horietako hizkuntza-errutinak euskaraz barneratu ditzaten lortu.

Borondatezkoa izatea

Patio orduak direnez proposatzen dizkiegun jardueretan parte hartzeak borondatezkoa izan behar du. Jarduera gustatu zaielako edota beraien lagunak ere horretan ari direnez parte hartzeko gogora dutelako aritu behar dute.

Beraz, gure ardura da jarduera erakargarriak antolatzea eta ikasleei modu egokian aurkeztea parte hartzeko gogoia izan dezaten.

Hainbat ikaslek ez badute parte hartzen:

- Eman garrantzia parte hartzen ari direnekin lortzen ari zaretenari. Merezi du. Ondo pasatzen ari dira eta euskarazko bizipenak izango dira gainera.
- Jarduerak planifikatzen dituzuenean, parte hartzeko ohitura ez dutenei begira zein jarduera izan daitezkeen erakargarriak pentsatu. Ziur erakarri ditzakegula jarduera batzuetara.

Zentro izatetik urruntzera

Patio orduetan euskararen erabileran eragin nahi baduzue, eta eragin hori denboran zehar mantendu nahi baduzue, irakasleon jokabidea da garrantzitsuenak:

Jarduerak proposatu eta dinamizatu beharko dituzue, eta dinamizatu behar ez direnean ere zuen presentziak handia eta aktiboa izan behar du.

Hori bai, euskararen erabilerak aurrera egiten badu, urruntzeko urratsak ere eman ditzakezue. Hau da: jarduera batzuekin euskara mantentzea lortzen bada, eta ikasleek jarduera horien dinamika barneratuta badute, urruntzeko urrats batzuk eman ditzakegu. Adibidez: jarduera proposatu, egoera egokia sortu, irakasleen presentzia mantendu, baina dinamikan ez parte hartu eta elkarrizketetatik kanpo geratu. Atzerapausoak ikusi ezker, berriz ere lehengora itzuli.

Ikasle helduenak eragile

Jarduera batzuen kasuan oso interesgarria eta eraginkorra izan daiteke. Ikasle helduenak irakasleon laguntzaile ere izan daitezke eta beraiek jarduerak dinamizatu ikasle gazteagoekin.

Irakasleon presentzia eta eragina mantendu beharko genuke, baina laguntzaileak izango genituzke.

Adibidez: patio ordu batzuk dinamizatzeko laguntzaileak eskatu ditzakegu, eta prest daudenekin lantalde bat osatu. Beraiekin jolas batzuk landu, beraiek txikiagoak diren ikasgeletara joan jarduera aurkeztera, eta hurrengo asteetan jarduera horiek egin gure laguntzaz.

Horrelako ekimenekin hiru gauza lor ditzakegu:

- Euskararen erabileran eragiteko laguntzaileak izatea eta eragina handiagoa izatea
- Txikiei erreferenteak eskaintzea: beraiekin euskaraz egiten duten ikasle helduagoak
- Handiei eragile izateko aukera ematea: euskararen erabileran eragile izateak eta horretan gustura aritzeak eragin zuzena du euskararekiko motibazioan

Erabilerari eman garrantzia, eta ez zuzentasunari

Patio orduetan euskararen erabileran eragin nahi dugu. Asko eta gustura erabil dezatela. Akatsak egiten badituzte edo euskara traketsa erabiltzen badute, ez eman garrantzia handiegirik. Asko eta gustura erabiltzen badute, hobetu eta aberastu ahal izango dute. Maiz zuzentzen baditugu, ez dute eroso erabiliko eta ez dute aurrera egingo.

Hori bai: gaizki erabiltzen duten horren aurrean eredu egokiak ematea ondo dago. Adibidez: guk zuzen errepikatzea. Entzun dezatela. Baina, normalean behintzat, ez errepikatu arazi.

Aurkeztea eta ahalegina eskatzea

Patio ordurako jarduerak planifikatzen ditugunean, ikasleei nola aurkeztu ere landu beharko dugu: jarduerak modu egokian aurkeztu behar ditugu erakargarriak izan daitezen (beraietako hainbatentzat behintzat).

Jarduera aurkezterakoan euskara erabiltzeko ahalegina eskatzea ere egokia izan daiteke:

- Batez ere hasierako jardueretan
- Bereziki euskara erabiltzeko ohitura eta erraztasun gutxi duten ikastetxeetako ikasleen kasuan

Adibidez: “Hemendik aurrera astelehen eta ostiraletan jarduera bereziak egingo ditugu patioan. Nahi duenak parte har dezake. Datorren hilabeteko jarduerak izango dira honako hau eta beste honako hau. Uste dugu zuen gustukoak izango direla eta primeran pasako duzuela. Hori bai, guk ahalegin bat egingo dugu jolas politikak egiteko, baina badakizue guretzat oso garrantzitsua dela zuek euskara asko erabiltzea. Jarduera horietan hori ere ikusi nahi genuke: zuek euskara asko erabiltzeko ahalegina. Lagunduko dizuegu, eta ondo pasatzea nahi dugu. Ziur lortuko dugula”

Jarduera hasi aurretik ere modu honetak mezuak eman daitezke, eta jardueran zehar Hezitzaile Berritsu moduan ari gareanean ahalegina eskatzea ere egokia izan daiteke, baina baita errefortzu positiboak ematea ere: “primeran ari zarete, oso ondo pasatzen ari naiz eta euskara asko entzuten ere bai, horrela merezi du jarduerak antolatzea...”.

3.– Proposamenen ezaugarriei buruz

Hiru modutako jarduerak proposatzen dizkizuegu. Adibide batzuk dira eta ziur beste hainbat jarduera ere bururatuko zaizkizuela.

Hizkuntza–errutinak dituzten jarduerak.

Hauek sortzea oso erraza da. Ikasleentzat erakargarriak izan daitezkeen jolas, ginkana edota kirol jardueretan hizkuntza–errutinak txertatu ditzakegu. Adibidez: erreleboa ematerakoan esan behar den esaldi bat, saskian baloia sartutakoan esan behar dena, eta abar. Derrigorrezkoa da esaldi horiek erabiltzea jolasak aurrera egin ahal izateko. Euskararen gutxieneko presentzia bat bermatzen dugu modu horretan, eta Hezitzaile Berritsu moduan gure jarduna errazten du.

Hizkuntza–erabiltzea ezinbesteko diren jarduerak.

Jarduera eraginkorrak izan daitezke euskararen erabilera indartzera begira. Jarduera bera egin ahal izateko ezinbestekoa da beraien artean hitz egitea. Adibidez: taldeka froga batzuk egin behar dituzte, irakasle batek taldeetako ordezkari banari ematen dizkie instrukzioak, eta hauek bere taldekoei azaldu behar diete. Azalpena eman eta besteek ulertzeko elkarrizketa horretan hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa da. Irakasleak Hezitzaile Berritsu moduan ari badira, egoera hori elkarrizketak euskaraz izan daitezen lagungarria da beraiarentzat.

Motibazioa oinarri duten jarduerak, edo euskara erabiltzeko ahalegin kontzientea egitea.

Kontuz jarduera hauekin. Ikastetxeetan joera handia egoten da patioan eragitera begira modu honetako jarduerak antolatzekoa.

Jarduera hauek ez dira jolasak edo talde dinamikak. Beraien kabuz dabiltzanean euskara mantentzen ahalegintzeko ekimenak dira. Erabil daitezke, baina hori ez da beti egokia.

Patioko jardueretan eragitea erabakitzen baduzue eta planifikazio horren barruan horrelako jarduera batzuk txertatu nahi badituzue, ondo. Baina ez da egokia patioko jarduerak planifikatu ez eta horrelako jarduerak proposatzea.

Hau da: irakasleok ez bagaude eragiteko prest, ez pasa besterik gabe beraiei ardura.

Adibidez: egunero, ikasleetako batzuk patio orduan euskara mantentzen ahalegindu behar dute, eta patio orduaren amaieran horri buruz galdetuko diegu (horrelako dinamikak modu erakargarrian egiteko adibideak txertatu ditugu dokumentuan).

Horrelako dinamikak egitea erabakitzen baduzue, patioan eragiteko beste jarduera eta plangintzaren zati osagarriak izan daitezela, eta ez jarduera nagusiak. Gure plangintzaren barruan txertatu behar dugu: irakasleok modu aktiboan eragiten ari garen orduetan izan daiteke, irakasleok beraien ahaleginaren eta zailtasunen aurrean hartu beharreko jokabidea argi izan behar dugu, planteatzen dieguna lorgarria dela argi izan behar dugu, eta abar.

Idea bat oso argi izan: modu honetako dinamikekin ez ditugu hizkuntza-ohiturak aldatuko. Hori bai: euskara erabiltzeko ahalegin kontzientea egin dezakete epe baten barruan eta horretan gustura aritu, eta hori oso positiboa da euskararekiko jarrerari begira.

4.- Hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa diren jarduerak

- Giza eskulturak
- Ipuin kontaketa saioak
- Ikasleek dinamizatutako tailerrak
- Itsua eta laguntzailea
- Submarinoak

Giza eskulturak

- Giza eskulturak egin behar dituzte taldeka
- Talde bakoitzak ordezkari bat aukeratuko du
- Azalpenak urrunetik eman beharko dituzte, eta taldekoek eskulturak egin.
- Antzekoa egin daiteke: marrazkiekin, objetuekin eraikuntzak egitearekin, eta abar.

Ipuin kontaketa saioak

- Atsedean tarte batzuetan ipuin kontaketa saioak egitea
- Ikasle helduenek txikiagoei kontatzea izan daiteke aukera bat

Ikasleek dinamizatutako tailerrak

- Ikasle helduenei proposatzea txikiagoentzat tailer edo jolasak egiteko
- Beraiek egiten dakiten zerbait zian daiteke edo guk proposatutako zerbait
- Txikiagoentzat izateaz gain, kideentzat ere izan daiteke

Itsua eta laguntzailea

- Konfidantza jolasak egitea. Adibidez: itsua eta laguntzailea.
- Bat begiak tapatuta eta besteak gidatuko du.
- Eskutik heldu izan daiteke, edo metro erdira jarrita eta azalpenak emanaz: aurrera, ezkerretara...
- Tarteka geratu, eta zerbait ukitu behar dute: zer den galdetu, zein diren sentrazioak...
- Dinamika hau hainbat modutara moldatu daiteke
- Bestelako konfidantza jolas batzuk ere oso erabilgarriak izan daitezke

Submarinoak

- Taldea jarri (ez oso talde handiak, 5-6 kidekoak nahikoa)
- Talde bakoitzak ilara egin eta elkarri sorbaldatik heldu
- Guztiak begiak estalita azkenkoa ezik
- Honek taldea gidatu behar dut azalpenak emanaz: aurrera, atzera, ezkerretara, eskuinetara...
- Ibilbide bat egin behar dute modu horretan
- Zailagoa ere egin daiteke: instrukioak belarrira esan behar dizkiote elkarri. Azkenak, auzkenurrekoari, honek hurrengoari... Adv: "bost pauso aurrera". Lehengoak entzuten duenean talde osoa gidatzen du bost pauso aurrera, "Sei pauso ezkerretara"... Eta abar.

5.- Hizkuntza-errutinak txertatzea jardueretan

- Hiru lerroan
- Maite zaitut
- Zapi zapi moldatua
- Pilota gora
- Trikitixa xa xa
- Lurra-airea-itsasoa
- Hau ez da nirea
- Ukitu zaitut

Hiru lerroan

- Hiru lerroan erraldoia lurrean margotu (gaztelaniazko “tres en raya”)
- Bi talde
- Talde bakoitzak gidari bat. Hau hiru lerroaren beste aldean jarriko da, taulatik bi metro ingurura.
- Besteak ilaran jarriko dira. Taulatik lau metro ingurura.
- A taldeko bat etorri korrika eta bere gidariari galdetuko dio: zein eta non?
- Gidariak erantzungo dio: Eskuin zutabearen goian dagoena, erdiko zutabearen behean.
- A taldekoak fitxa mugitu eta bere ilarara itzuli.
- Fitxa mugitu orduko B taldekoa etorri bere bere gidariari galdetu.
- Modu horretan, taula osatu arte.

Maite zaitut

- Guztiak borobilean (nahi izan ezkerer eserita) eta bat erdian zutik
- Erdian dagoena batengana hurbildu eta: Maite zaitut.
- Honek: Zergatik?
- Erdikoak: Galtza urdinak dauzkazulako.
- Galtza urdinak dituzten guztiak lekuz aldatu behar dute. Bat lekurik gabe geratuko da eta erdian jarriko da.
- Erdikoa batengana hurbildu: Maite zaituz. Zergatik? Ile luzea daukazulako.

-...

Zapi zapi moldatua

- Zapi zapi jolasean hizkuntza-errutinak jartzea
 - Soka batetik zintzilik hainbat objektu jarriko ditugu: zapia, bisera, galtzeria, lepokoa...
 - Bi talde egin eta talde bakoitzean zenbakiak banatu
 - Piztaren alde banatan jarri taldeak
 - Erdian bi kide sokari heltzen: batek objektua definituko du, eta besteak zenbakia esango du
 - Zenbaki hori dutenak objektuaren bila joan
 - Hartzea erabakitzen dutenean, aurrena objektuaren izena esan (besteak ez du balio)
 - Heldu eta korrika abiatu. Besteak ez du harrapatu behar.
 - Iristen bada: "Zapia niretzat" esan behar du. Edo harrapatua izan bada, besteak esango du "Zapia niretzat":
- ...

Pilota gora

- Betiko A,E,I,O,U jolasa baina hizkuntza errutina batekin
- Jolasa egingo dugu, eta osatzea lortzen denean pilotatxoak norabiti ematen badio, honek korrika joan behar du pareta eta aukeratu dugun lekua ukitzera
- Bitartean besteak bizkarrean ematen saiatu dira (xuabe)
- Baina:
 - o U esan eta pilotari azken eman dionak galdera bat egingo dio. Adibidez, gaia biderketen emaitza izan daiteke: Zenbat da 6 x 7?
 - o Korrika doanak erantzun egin behar du. Ez du pareta ukitzeak soilik balio, erantzun ere egin behar du.

Zubiri Zubiri edo Trikitixa xa xa

Abestiak dituzten jolasak oso erabilgarriak dira patio garaiko jarduera moduan, Hizkuntza-errutina abestia bera da askotan.

Trikitixa abestia horrelako bat da:

- Eskuak aurrera, buruak gora, trikitixa trikitixa trikitixa xa xa
- Eskuak aurrera, buruak gora, mingainak kanpora, trikitixa trikitixa trikitixa xa xa
- ...

Zubiri zubiri ere adibide ona da:

- Zubiri zubiri nongorik nongo...
- Makarroiak edo arroza?
- Nire atzera. Edo bere atzera.
- ...

Lurra-airea-itsasoa

Hau ez da nirea

Ukitu dizut

6.- Motibazioa oinarri duten jarduerak

- Botila betetzea
- Rol jolasa eusleekin

Botila betetzea

- Izenburua: Euskararen ontziko mezu sekretua.
- Behar ditugu:
 - o Bi botila: bat litro batekoa eta bestea bost litrokoa (edo beste kopuru batzuk izan daitezke).
 - o Plastikozko pilota txiki bat: barruan paper bat sartu eta botila handian sartu daitekeena (tabernetako makinetako oparidun pilota horiek balio dezakete).
- Botila handian, hutsa dagoela, pilota sartuko dugu eta pilotaren barruan mezu sekretua egongo da idatzita.
- Botila urez betetzea lortzen dutenean, pilota gora igoko denez, pilota atera ahal izango dute eta mezua irakurri.
- Botila handia urez betetzeko, egunero (edo zehaztu dugun maiztasunez) botila txikian lortu behar dute ura.
- Botila txikia urez betetzeko euskara “asko” erabili behar dutela esango diegu: helburua dela beraiek euskara asko erabiltzen saiatzea, horretan gustura aritzea eta guk lagunduko diegula. Egunero galdetuko diegu euskara “asko” erabili ote duten: gaur asko erabili duzue? Atzo baino gehiago? Nork lortu du normalean egiten ez duen batekin edo egiten ez duen egoera batean euskara erabiltzea? Zer ikusi dugu guk?... Ebaluazioaren arabera, botila txikia osoa beteko dute, erdia... Lortzen duten ur hori botila handira botako dute.
- Kanpaina amaituko da botila handia bete eta mezua irakurtzen dutenean (baina ez dadila gehiegi luzatu, astebete eta aste eta erdi artean gehienez ere).
- Zein izan daiteke mezua?
 - o Beti agertu behar du: Euskararen erabilera baloratzen duen mezua (egin duten ahalegina), gure poza adierazten duena...
 - o Sarien bat ere jar daiteke
 - o Sariaren ordezkari nahikoa izan daiteke beste taldeek ez duten informazio bat ematea: inauterietako mozerroa zein izango den, udaberriko txangoa nora egingo den, hurrengo azterketan

agertuko den galdera bat, ikastolara etorriko den pertsonai ezagunen bat...

- Ematen dugun mezua behar bezain erakargarria bada, kanpaina tarteka errepikatu dezakegu.

Rol jolasa eusleekin

Eusleak:

- Eusleak dira denbora tarte batean euskara mantentzeko konpromisoa hartzen duten ikasleak. Euskarari eutsiko diote, baita besteek erdaraz egiten badute ere. Adibidez: patio ordu batean.
- Ez dugu nahi ikasle guztiak eusle izatea. Talde bakoitzeko 5 edo 6 izan daitezke gehienez, eta egunen arabera aldatu.
- Eusle izan daitezke horretarako prest dauden ikasleak, eta irakasleok animatu egingo ditugu txandaka guztiak izan daitezen.

Dinamikaren oinarria:

- Eusleen lana errazteko, istorioak sortu ditzakegu. Egun batekoak edo aste batzuetakoak.
- Istorio horietako protagonistak izango dira eusleak.
- Euskara mantentzeaz gain, beste ezaugarri batzuk ere izango dituzte. Hau da: eusle izatea ezaugarrietako bat izango da.
- Jolas itxura izango du, ondo pasatzea nahi dugu, baina euskara mantentzea.
- Tarte bakoitzaren ondoren, eusleekin bildu behar du irakasleak eta lortu ote duten eta sentrazioak zein izan diren galdetu

Adibidez: Piraten altxorra

Erronka:

- Altxorra! Hiru zenbaki dituen kandado batekin itxiko dugu kutxa bat.
- Hiru zenbaki horiek lortu behar dituzte
- Dinamizatutako hurrengo hiru patio saioetan egingo dugu, eta bakoitzean zenbaki bat lortu ahal izango dute

Azalpena:

ebete

- Talde bakoitzeko bost eusleek tarte horietan modu jakin batean jokatu behar dute
- Irakasle batzuek ere eusleen moduan jokatu beharko dute
- Tartearen amaiera aldera, eusleak eta irakasleak bidluko dira, eta galdera batzuk erantzungo dituzte
- Galderen ondoren hezitzaileak asmakizun bat edo froga bat aurkeztuko die
- Hori gainditzen dutenean zenbakia lortuko dute
- Hiru zenbakiak lortzean, kutxa irekiko dute

Hasiera:

- Leku nabarmen batean kutxa bat jarriko dugu kandado batez lotuta. Hiru zenbakidun kandado bat.
- Ikasgelan sartzen diren momentutik, ikusi egin behar dute. Oso bistan egon behar du.
- Ikastetxean zehar kartelak edo girotzeko gauzak jar daitezke: Lortu altxorra!

Istoria:

- Irakasleek kontatu dezakete, edo bideo batean aurkezteko aukera bagenu, askoz hobe.
- Hemen daukazue Mundakako altxorra (edo Getarikoa, edo...)
- Orain dela urte asko ekarri zuten pirata batzuk Pazifikoko irla batetik, baina inork ez du lortu kutxa irekitzea.
- Inork ez daki kutxarekin zer egin eta guri ekarri digute. Irekitzen badugu, altxorra guretzat omen da.
- Kutxa irekitzeko hiru zenbakiak lortu behar dituzue.
- Zenbaki bakoitza lortzeko protagonistak zuetako bost izango dira. Zuetako bost izango zarete gaurko "piratak".
- Baina garai horretako piraten moduan jokatu behar duzue, bestela ez duzue lortuko.
- Gure piratek, hau egiten dute:
 - o Euskaraz hitz egiten dute. Bizkaieraz. Ez dakite gaztelaniaz, ez frantsesez, ez ingelesez. Beti euskaraz egiten dute, baina Bizkaieraz.
 - o Ibiltzerakoan, kojoka ibiltzen dira, garai batean izan zuten zauri baten erruz.
 - o Begian partxe bat eta buruan zapi bat eramaten dute.
- Patio orduan zuetako bostek horrela jokatu behar duzue

- Tarte horien amaieran, pirata nagusiak (irakasle batek), elkartu egingo zaituztete piratak eta galdera batzuk egingo dizkizue, baita froga bat gairatzeko eskatu ere. Orduan lortuko duzue zenbakia.
- Dena ondo badoa, altxorra lortuko duzue.

Giroitze lana:

- Eusleek pirata izena jarriko diote beren buruari.
- Zapi bat eta partxe bat emango dizkiegu. Nahi duten moduan eraman ditzakete.
- Irakasle Berritsu moduan aritu behar dugu: ezaugarriak ondo betetzen al dituzte? Kojoka dabilta? ...

Nortzuk izango dira eusleak?

- Saio baten hasieran dinamika azalduko diegu eta istorioa kontatuko diegu.
- Eusle izateko prest nor dauden galdetuko diegu
- Bost aukeratu ditugu (eta besteei hurrengo egunetan izateko aukera dutela esango diegu)
- Eusle ez direnei laguntzeko jarrera izateko eskatuko diegu. Nahi badute beraiek bezala jokatu, baina batez ere beraien lana erraztu.
- *Oharra: guztiek izan behar dute eusle izateko aukera, eta beraz, egunez egun eusleak aldatu. Batzuk ez badira inoiz animatzen, egunean zehar beraiekin hitz egin eta hurrengo egunean animatu daitezzen gonbidatu*

Zer eskatuko zaie besteei?

- Piratak animatu behar dituzte beraien rola ondo betetzera eta lagundu egin behar diete. Berdin jokatzen badute, askoz hobe.

Balorazioak eta frogak:

- Tarte bakoitzaren amaieran, irakasle bat eusleekin bilduko da eta galdera batzuk egingo dizkie:

ebete

- Zer moduz aritu dira? Kojoka ibili dira? Denbora guztian euskaraz egin dute?
 - Garrantzia berezia emango zaio azken puntu honi: argi azalduko zaie guretzat klabea nagusia hori dela. Erraz mantendu al dute? Tarteren batean zaila egin zaie? Zailtasunak izan badituzte, hurrengo egunetakoei zer proposatu horiek gainditu ditzaten?
-
- Ondoren, zenbakia lortzeko froga bat gainditu beharko dute: asmakizun bat erantzutea, matematiketako ariketa bat egitea, kirol froga bat edo dena delakoa. Zerbait nahiko azkar egin daitekeena.

 - Zenbakia emango diegu